

Indarkeria matxisten aurkako esperientziak eta ekimenak Euskadin

Egilea: Raquel Andrés Dura
Argitalpenaren koordinazioa: InteRed Euskal Herria
Edizioa: InteRed Euskal Herria
Diseinua eta maketazioa: Kalaka Koop. Elk. Txikia
Itzulpena: Bakun, S.L.
Data: 2024ko urria

Argitalpen hau Elankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren finantza-laguntzarekin egin da. “Berdintasunaren unea da: zaurgarritasun-arriskuan dauden emakumeen ahalduntzea -begirada globalarekin- indarkeria matxistarik gabeko mundu baterako agente eraldatzaile gisa” eta “Emakume eta gazte antolatuak eragiteko, artikulatu eta mobilizatu egiten dira jazarpen politikoa, sexu-jazarpena eta ziberjazarpena saihestu, zigortu eta desagerrarazteko, zaintzen erantzukidetasuna Punon eta Bizkaian sutatzeko” proiektuen barruan. InteRed Fundazioa da argitalpen honetako edukiaren erantzule, eta hemen jasotako iritzi guztiek ez dute zertan bat etorri Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziarekin, ez Bizkaiko Foru Aldundiarekin.

Finantzatzailea:



Argitaratzailea:



AUR- KIBI- DEA

1

Pág. 4

Sarrera

2

Pág. 5

Indarkeria matxistak definitzen

3

Pág. 7

Indarkeria matxisten aurkako esperientziak eta ekimenak Euskadin

Autonomia-erkidegoetan Pág. 8

Udal eta mankomunitateetan Pág. 11

4

Pág. 20

Antzeratu daitezkeen esperientziak: emakume politikarien aurkako indarkeria agendan sartzea-
Manuela Ramos Emakumeen Mugimendua (Peru)

5

Pág. 21

Indarkeria matxistari tokian bertan aurka egitearen garrantzia

Sarrera

4

Indarkeria matxista gaitz historikoa da gure gizarteetan, eta oso berriki saiatu gara auzi horri irtenbidea ematen. Emakumeen aurkako indarkeria berriaz jorratu zuen lehen nazioarteko tresna 1993ko *Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko Adierazpena* izan zen, Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutakoa. Espainiako estatuan, 2004ra arte ez zen onartu Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko Legea. Nahiz eta emakumeentzako babes-esparru bat sortzeko lege horrek goraipamen handia izan, ez zituen beharrezko berme guztiak jasotzen. Eragozpen nagusi bat zuen: ez zuela gainditzen emakumeen aurkako indarkeriaren ikuskera pribatua, eta, beraz, ez zuela berriaz zehazten emakumeek publikoki jasandako indarkeria. Hau baino ez zuen jasotzen: gizonak emakumeen aurka egindako indarkeria zela, bikote edo bikotekide ohien harreman pribatuetan. Hala, ez zuen aintzat hartzen alde zuzenetik harremanik izan ez zutenen arteko indarkeria oro.

Euskadiko egoerara hurbilduta, indarkeria matxisten aurkako legeriari eta ekintzei dagokienez, azpimarratzekoa da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea, 1988koa; Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren I. Ekintza Plana, 2010ekoa; eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako Legea, 2023koa. Berriki ezarritako lege horrek erdigunean jartzen du bizitzaren jasangarritasuna, eta baitako sekzio arteko ikuspegiak generoa lotzen du beste aldagai batzuekin (jatorriarekin, etniarekin, aniztasunarekin...). Horrez gain, indarkeria matxisten definizio ugari jasotzen ditu, beste tipologia batzuk gehituta: indarkeria digitala, indarkeria obstetrikoa edo biktimari babes ematen dion ingurunearen aurka egindako indarkeria, besteak beste.

Alde horretatik, funtsezkoak dira nazioarteko erakundeek indarkeria matxistari aurre egiteko dituzten tresnak, arazo global hori agendan finkatzeko eta estatuen konpromisoak lortzeko, nahiz eta, tamalez, bata eta bestea lotesleak ez izan. Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeriek emandako aurrerapausoak agerikoagoak dira muturreko indarkeriaren biktimei izan direnei emandako arretan. Dena den, ez da beti erraza izaten halako kasuak detektatzea, batez ere kontuan hartuz gero indarkeria matxistaren zikloak bere baitara zedarritzen duela biktima, eta haren gizarte-ingurunetik isolatzen duela. Egoera horretan garrantzi handia dute tokian bertan aplikatutako ekintzek, bitarteko batek

edo besteak egindakoek: nola indarkeria matxisten hainbat eremu lantzen dituzten kolektibo feministek, hala udal erakundeek. Ekintza horiek dira prebentzioa (bai biktima izan daitezkeenentzako jardunbideak, bai jazarle izan daitezkeenentzako hezkuntza) eta babesak; baita, ondoren, muturreko bizipenak jasan eta gero autoestimua berreskuratu behar duten emakumeei dagokien ahalduntzea ere. Euskal Autonomia Erkidegoan garatutako hainbat esperientzia eta ekimen baliagarriak izan daitezke inspirazio edo adibidetzat. Hala, betebeharren ardura duten hautetsiek eta erakundeek, hala nola emakumeen erakundeek edo gizarte zibileko beste kolektibo batzuek, antzeratu egin ditzakete, eta jarduteko protokoloak sortzeko baliatu.

Dokumentu honetan bildu ditugun eta nabarmentzekoak diren esperientziak azken urteotan ezarri dira Euskadin, eta beren ekarpena egiten dute emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzeko. Lan hau hurrengo proiektuaren baitan egin eta gizarteratu da: *Berdintasunaren unea da: zaurgarritasun arriskuan dauden emakumeen ahalduntzea – begirada globalarekin – indarkeria matxistarik gabeko mundu bat eraikitzeko eragile gisa*. Diruz lagundu du eLankidetzak, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak, Garapenerako hezkuntzako proiektuetarako laguntzen (K3) bitartez.

2

Indarkeria matxistak definitzen

Ekimenak eta jarduteko bideak bilatzeko, garrantzitsua da jakitea zeri egin behar diogun aurre, Espainiako legeak lehen artikuluan emandako definizioa errealitatetik urrun baitago: “Diskriminazioaren, berdintasun-faltaren eta gizonen emakumeen gainean dituzten botere-harremanen agerpen gisa erabiltzen den indarkeria [...] emakumeen aurka erabiltzen dutenean horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarrekin ez bizi”. Jakin badakigu indarkeria matxista ez dutela soilik emakumeek bikotekideengandik edo bikotekide ohiengandik pairatzen, ezta nolabaiteko afektibitatea izan duten pertsonengandik ere. Indarkeria patriarkal sistematiko batek zapaltzen eta erreprimitzen ditu emakumeak, emakume izate hutsagatik. Zorionez, pixkanaka aldatu da indarkeria matxisten definizioa, indarkeria horri ezabatzekeo premia larria dagoela aldarrikatu duten mugimendu feministei eta erakundeei esker.

Horrela, kasuistika pixkanaka zabaldu da, eta indarkeria-mota zehatzak hartu ditu, hala nola indarkeria sexuala, sinbolikoa, instituzionala, psikologikoa, ekonomikoa, lanekoa edo bikarioa. InteRed Fundazioan Istanbulgo Hitzarmenaren definizioa darabilgu, 2011ko maiatzaren 11koa. Hitzarmen hori Europako nazioarteko tresna juridikorik garrantzitsuena da emakumeen aurkako edozein diskriminazio eta indarkeria prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko. Benetan da baliagarria, ez baitu soilik bikotekidearen/bikotekide ohiaren eremuko indarkeria matxistei buruz hitz egiten: “Emakumeen aurkako indarkeria” kontzeptua hartzen du giza eskubideen urraketa baten eta emakumeen aurkako diskriminazio modu baten uztartaketatzat, eta izen hori ematen dio generoan oinarritutako edozein indarkeriari, baldin eta emakumeei kalte edo sufrimendu fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoak eragin badizkiete edo molde horretako kalteak ekar badiezazkiekete. Jasota ditu, gainera, halako ekintzak egiteko mehatxuak, derrigortzeak edo askatasunik ez emate arbitrarioak ere, nola bizitza publikoan hala pribatuan gertatutakoak”.

Honela definitzen du indarkeria matxista Kataluniako legeak, emakumeek hura deuseztatzeke duten eskubideari buruzkoak: “Bereizkeriaren eta desberdintasun-egoeraren adierazpen gisa emakumeen aurka egindako indarkeria, gizonak emakumeen gainean dituzten botere-harremanen sistema baten esparruan, eta baliabide fisiko, ekonomiko edo

psikologikoen bidez mehatxuak, larderia eta derrigortzeak barne egiten dena, eta ondorioztat kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa dituen, eremu publikoan zein pribatuan”. Laburrago esanda: “Emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten duten indarkeria-mota oro, emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman desberdinen esparruan”.

3

Indarkeria matxisten aurkako esperientziak eta ekimenak Euskadin

Farmazietan indarkeria matxista detektatzea

Zertan datza?

Emakunde (Emakumearen Euskal Erakundea) lankidetzan ari da Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazialarien Kontseiluarekin, indarkeria matxisten kasuak detektatzen laguntzeko. Helburu horretarako, informazio-, prebentzio- eta sentsibilizazio-jarduerak garatzen ari dira autonomia-erkidegoan dauden 842 farmaziak abiapuntutzat hartuta, farmazia horiek detekzio-radar gisa jardun dezaten. Biktima diren emakumeentzat, farmaziak sarbide garrantzitsuak dira administrazio publikoek emandako arreta-sistamarako.

Prestakuntzetan, profesionalei hau irakasten zaie: nola identifika ditzaketen indarkeria matxista pairatzen duten emakumeak, zer sintoma edo zantzuri erreparatu beharko lieketeen, zer egin behar duten halakorik hautemanez gero, eta, nola garatuko beharko luketeen, ondoren, jarduketa-prozedura egokia.

Ekimen honen bitartez, farmazialariak trebatzeaz eta ekitera bultzatzeaz gain, euskal farmaziek honako mezu hau sartuko dute erosketa-tiketetan: «Indarkeria matxista. Laguntza behar duzu? Deitu 900840111 zenbakira». Biktima diren emakumeei informazioa eta arreta emateko zerbitzu espezializatuaren (SATEVIren) telefonoa da; doakoa da, eta ez da telefono-fakturan agertzen.

Autonomia- erkidegoetan

Nori dago zuzenduta?

7

Euskal Autonomia Erkidegoko farmazietan lan egiten duten profesionalei.

Nork bultzatu du?

Emakundek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazialarien Kontseiluak.

Jaietarako indarkeria matxisten aurkako protokoloak

Zertan datza?

8 Gero eta hedapen handiagoa dute Puntu Moreek edo tankerakoek herriko ospakizunetan. Hala ere, oraindik udalerri askok ez daukate protokolo espezifikorik, herriko jaietan indarkeria matxistari aurre egiteko. Horretarako, Emakundek gida oso bat egin zuen «jaietan emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko tokian bertako prozesuak bultzatzeko», gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko BeldurBarik programan.

Gida horrek gomendioak ematen ditu edozein udalek protokolo bat ezartzeko, udalerriaren horren tamaina zeinahi dela ere. Dokumentu horren arabera, beharrezkoa da tokiko kolektibo feministekin lan egitea eta balizko biktimei arreta jasotzeko hainbat baliabide ematea, hala nola larrialdietarako telefonoa (112), SATEVIren telefonoa (900840111) edo udalak berak martxan jarriko bat (aldez aurretik horren berri emanez, eta taberna eta txosnetan eskuragarri jarritz). Horrez gain, informazio-guneak jarri behar dira, emakumeei berehalako aholkularitza eta arreta emateko. Era berean, beste protokolo osagarri bat sortzea proposatzen da, eraso matxistaren bat gertatuko balitz, eraso horri publikoki erantzuteko.

Nori dago zuzenduta?

Udalei.

Nork bultzatu du?

Emakundek, Emakumearen Euskal Erakundeak.

Gazteentzako indarkeria matxisten aurkako ikus-entzunezko lehiaketa

Zertan datza?

Emakunderen BeldurBarik programak ikus-entzunezko lehiaketa bat antolatzen du urtero, 12 eta 20 urte bitarteko gazteek egindako adierazpen artistikoak saritzeko (adin-tartearen arabera sariak ematen dira). Gazteek adierazpen horietan erakusten dute nola egin dakiekeen aurre desberdintasun-egoerei errespetuz, parekotasunez, askatasunez eta autonomiaz, elkartasunez eta indarkeria sexistaren gaitzespen irmoz.

300 lan jasotzera heldu den lehiaketa horretan, parte-hartzaileek gai hauek jorratzen dituzte: rol eta estereotipo sexistak, indarkeria matxista bikote-harremanean, kaleko jazarpena, emakumeen ahalduntzea eta eskubide eta aukera berdintasunaren printzipioaren aldarrikapena. Ekimen horrek jomugatzat du gazteek beren ingurune hurbilenean sexismoaren eta indarkeria matxistaren adierazpen guztiak aitortzea eta horiei aurre egitea, eta, horri esker, berdintasunaren aldeko aktibistak izatea.

Nori dago zuzenduta?

9

12 eta 20 urte bitarteko gazteei.

Nork bultzatu du?

Emakundek (autonomia-erkidegoetan) eta udal eta mankomunitateek.

Behin eta Berriro ihes-gela

Zertan datza?

10

Ihes-gela (ingelesezko escape room) izeneko jolasaren helburua da denbora-tarte jakin batean gela batetik ihes egitea lortzea, eta, horretarako, enigma batzuk konpontzea. Dinamika horri jarraikiz, bisitariei gonbit egiten zaie eguneroko bizitzan murgiltze-esperientzia bat bizitzeko. Esperientzia horrek argitara ateratzen ditu indarkeria matxista duten egoerak, emozioei eragiteko, gogoeta egiteko eta hausnartzera bultzatzeko.

Mota bateko eta besteko agertokiak, argiak eta soinuak dituen muntaia hunkigarri baten bidez, parte-hartzaileek gela batetik bestera egiten dute aurrera. Ibilbide horrek aukera emango die indarkeria matxistak zer eragin duen ezagutzeko, bai emakumeengan bai gizarte osoarengan.

Dinamikaren helburua bertaratutakoak bultzatzea da, hausnarketa egitera eta norbere burua zalantzan jartzera. Horri esker, indarkeria arbuiatu ahal izango da, eta gizarte-inplikazioa areagotu, indarkeria matxistei aurre egiteko. Ibilbideak aztergai ditu soziabilizazioaren etapak, besteak beste Lehen Hezkuntza eta haren genero-estereotipoak, Bigarren Hezkuntza, gazteria, institutua, ikaskideekiko harremanak, bikotekidearekiko eta familiarekiko harremanak eta aisialdia. Era bateko eta besteko eremuak ditu baitan, hala nola haur-gela bat, etxebizitza bat, eskola-gela bat, lokal bat edo jaialdi bat.

Nori dago zuzenduta?

Herritar guztiei, 45 minutuko saioetan. Berriazko saioak antolatu dira gazteen inguruko kolektibo eta pertsona-taldeentzat, hala nola hezkuntza-komunitateentzat, kirol-klubentzat eta funtsezko beste eragile batzuentzat.

Nork bultzatu du?

Agintzari kooperatiba sozialeko gizarte hezitzaileen talde batek asmatu zuen. Barakaldon eta Basaurin egin dute.

Biktimen erreparazio- eskubiderako protokoloa

Zertan datza?

Guztiek ez dituzten arren, gaur egun, zorionez, EAEko udal askok indarkeria matxisten biktimei arreta integrala emateko protokoloak dituzte. Protokolo bat izatea edozein udaletxek eman beharreko funtsezko lehen urratsa da. Nabarmentzekoa da Andoaingo 2019ko protokoloa, indarkeria matxistaren biktimei eta bizirik atera direnei arreta emateko erakundeen arteko jarduera eta koordinazioari buruzkoa. Izan ere, protokolo hori da lehena biktimen erreparazio-eskubide hori jasotzen (atzetik datozkio beste batzuk, hala nola Durangokoa eta Gasteizkoa). Akordio politiko bat izan zuen aldean.

Protokoloak esku-hartze indibiduala, kolektiboa eta publikoa jasotzen ditu. Banakako erreparazioa jasotzeko neurririk garrantzitsuenak Taupada du izena, eta emakumeei genero-ondoezaren gaineko arreta psikologikoa emateko gune bat da. Ondoez hori indarkeria-kasuekin edo egiturazko desberdintasunekin egon daiteke lotuta (emakumeek ez dute zertan biktima sentitu, arreta jasotzeko). Berdintasuneko baliabide espezializatu bateko arreta-zerbitzu horretan, alde zurretik hartu daiteke hitzordua, gizarte-zerbitzuetara joan behar izan gabe.

Andoaingo protokoloak Udalak bultzatutako diagnostiko bat du atzean, udalerriak indarkeria matxistaren inguruko zein errealitate zuen jakiteko

egindakoa. Diagnostiko hori Sortzen aholkularitza-enpresak aztertu zuen, eta azterketa horretatik ondorioztatzen zen beharrezkoa zela jarduera-protokolo bat sortzea, Udalaren, Ertzaintzaren eta Osakidetza-jarduna koordinatzeko, genero-indarkeria prebenitzeko eta biktimei arreta emateko.

Protokolo horri lehen aldiz gehitu zitzaion biktimen erreparazio-eskubidea ere. Bertan zehaztuta dago biktimak kalte-ordainak eta birgaitzea eskura ditzakeela. Gainera, orientazioa eta prestakuntza eskaintzen diete erakunde, talde eta eragileei.

Berdin Sareak, berdintasunaren aldeko euskal udalerrien sareak, 2020an argitaratu zuen «Indarkeria matxistaren biktimak erreparatzeko tokiko ekintzak» gida. Gida horretan udalek egin ditzaketen ekintza zehatzak proposatzen dira; besteak beste, osasun-arreta eta arreta psikologikoa errazago jasotzeko aukera ematea, erasotzaileei zuzendutako programak ezartzea (sentsibilizatzeko eta berriro hezteko), emakume biktimen arteko asoziazionismoa sustatzea, ahalduz eskolak sortzea. Bestalde, informazioa ematea, hala nola lan-eskubideen, laguntzen, baliabide ekonomikoen eta etxebizitzaren inguruan.

11

Nori dago zuzenduta?

Biktimei, orientazioa eta aholkularitza emateko. Indarkeria matxistaren aurka borrokan diharduten erakundeei, prebentzio- eta arreta-tresnatzat baliatzeko.

Nork bultzatu du?

Batetik, Andoaingo Udalak; bestetik, Sortzen aholkularitza-enpresak, espezializatuta baitago indarkeria matxistaren azterketan, indarkeria horri aurre egiteko eta emakumea ahalduz jasotzeko ekintzatan.

Bizirik, biziraun duten emaku- meen kolektiboa

Zertan datza?

Bizirik emakumeen elkarte bat da, eta indarkeria matxistaren biktima izan ziren eta antolatu diren emakumeek osatzen dute, biktima diren edo izan diren beste emakumeei laguntza emateko. Aurkezpen bat egin zuten jendaurrean, beren lan-proposamenen berri emateko eta komunikazio-bideak sortzeko.

12

Bizirik Gasteizen jaio zen, eta proposamenak landu ditu hainbat udal zerbitzurekin (hala nola berdintasunarekin eta Udaltzaingoarekin), esku-hartze publikoa hobetzeko eta indarkeria matxistaren biktima diren edo izan diren emakumeen ahalduntzea eta autonomia sustatzeko. Erakundearen helburua da biktimek beraiek adieraztea, beren bizipenetatik, hausnarketatik eta proposamenetik abiatuta, udalak esku-hartzeko egin beharko liratekeen hobekuntza-prozesuak. Bide beretan ibili diren emakumeak diren aldetik, sortu duten babesguneak berezko ditu sororitatea, elkarri laguntzea, konfiantza eta ulermena. Horri esker, errazago esku hartu daiteke indarkeria matxistaren biktimekin. Gainera, elkartearen babesgune horrek jomuga izan ditu ahalduntze pertsonala eta kolektiboa, baita biktima izan diren profila baztertzea eta gizarte-eraldatzeko eragile bihurtzea ere.

Bere aldarrikapenetako bat erreparazio-eskubidea da. Horren bitartez adierazten du estatuak arau-hauslearen aldi baterako ordezkari izan beharko lukeela (aita babesle gisa) eta bermatu egin beharko lukeela familia-taldearen egonkortasuna emakumeak baliabiderik ez badu, erasotzailearen aurrean eskeketasun-egoeran ez uzteko.

Nori dago zuzenduta?

Indarkeria-prozesuaren une batean edo bestean indarkeria matxistaren biktima diren edo izan diren eta aholkularitza behar duten emakumeei, izan indarkeriaren zurrunbilotik ateratzeko, edo, behin aterata, ahalduntzeko eta erreparazioa jasotzeko.

Nork bultzatu du?

Bizirik elkartek, indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeen Gasteizko elkartek.

Udaltzaingoaren prestakuntza espezializatua

Zertan datza?

Udaltzainek ezinbesteko zeregina dute indarkeria matxistaren prebenitzen, detektatzen eta biktimei arreta ematen. Salaketa bat jartzeko prozesua, askotan, oztopo-lasterketa baten modukoa izaten da emakumeentzat: behin eta berriro azaldu behar izaten diete hamaika pertsonari (polizari, medikuari, abokatuari...) zer jasan duten. Horren eraginez, zurrumbilo batean sartzen dira: behin eta berriro bihurtzen dira biktima, eta lagungarriak ez zaizkien iruzkin edo galderei erantzun behar izaten diete.

Funtsezkoa da eragile garrantzitsu batek prestakuntza jasotzea, hala nola udaltzaingoak. Izan ere, horrek aukera emango lioke jakiteko nola hurbildu beharko litzatekeen emakumearengana edo biktima bikarioarengana, zeri eman beharko liokeen garrantzia, nolako giroa sortu beharko lukeen eta zer urrats eman beharko lituzkeen. Horri esker, ez litzateke biktimizazio instituzionalik gertatuko, txikiago egingo litzateke biktimizazio bikoitza (edo hirukoitza) eta ahalik eta arreta egokiena emango litzaioke.

Hainbat euskal udalerri erabaki dute beren udaltzainak prestatzea, teoria eta praktika uztartzen dituzten ikastaroak emanez. Udalerririk horiek dira Arrigorriaga, Bilbo, Getxo, Sestao eta Amurrio, besteak beste. Gainera, BerdinSareak zenbait tailer antolatu ditu udaltzaingoaren eta berdintasun-arloaren artean, elkarren arteko koordinazioari eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateari buruz.

Nori dago zuzenduta?

13

Udaltzainei.

Nork bultzatu du?

Udalek, erakunde espezializatuekin lankidetzan.

Maskulinitate matxista deseraikitzea

Zertan datza?

Hainbat euskal udalerrik maskulinitate berriei buruzko tailerrak antolatu dituzte, gizonetzkoak indarkeria matxistaren aurkako borrokan inplikatzeko. Saio horien helburua da gizonetzkoak berdintasunaren aldeko eragile aktibo bihurtzea, eta, helburu horretarako, maskulinitate menderatzaile eta matxista zalantzan jartzea.

- 14 Horren adibide bat dago Basaurin. Basauriko Indarkeria matxistaren aurkako II. Tokiko Plana 2024tik 2027ra dago indarrean. Plan horren neurri bat Ahalduentze Eskola bat sortzea izan da. Eskola horretan maskulinitate matxista deseraikitze ikastaroak eskaintzen dira; berariaz sortu da gizonentzat, eta haietarako soilik. Era berean, ikastetxe batean zenbait saio egitea aurreikusten du, adingabeekin (bereziki mutilekin) indarkeriaren prebentzioa lantzeko, haiei txikitatik eragin ahal izateko. Badu beste helburu bat ere: erakunde pribatuetan hurrekin eta gazteekin lan egiten duten pertsonen prestakuntza ematea.

Molde horretako beste ekimen batzuk egin dira Zumarragan ere, Piper Txurien (Berdintasunaren aldeko Gizonen Taldearen) eskutik. Batetik, argazki-erakusketa batean zenbait eszena erakutsi zituzten, maskulinitate tradizional patriarkal eta hegemonikoari ez dagozkion rolak eta portaerak zituzten gizonenak. Bestetik, zenbait tailer antolatu zituzten ikastetxe, kolektibo eta herritarrentzat, generoa deseraikitze.

Nori dago zuzenduta?

Edozein adinetako gizoni.

Nork bultzatu du?

Kolektiboak, erakunde espezializatuek eta udalek.

Ttipi-Ttapa **Morea, espazio publikoa hartzeko kirola**

Zertan datza?

Ttipi-Ttapa Morea Zaldibiako emakumeek egindako jardunaldi bat da. M8aren ondoko larunbat batean egiten den jardunaldi horretan, zaldibiatarrek espazio publikoa hartzen dute egun oso batez. Goizean, emakume ugari ibilbide ez-lehiakor batean parte hartzen dute (oinez nahiz korrika); ondoren, emakumeentzako berariazko bazkari bat egiten da; eta arratsaldean eta gauean, publikoa mistoa bada ere, lekukoa emakumeek daramate tabernetan (haien esku dago musika, eta gehiago dira).

Herri txikietan, Zaldibian kasu, gaueko bizitza eta tabernak betidanik izan dira maskulinizatutako espazioak. Jardunaldi horren helburua, beraz, emakumea kirolaren bitartez ahalduztzeaz gain, espazio publikoan eta gaueko aisialdian ikusaraztea da. Horrela, aurre egin nahi zaio indarkeria sinbolikoari, zenbait eremu emakumeentzat ez direlakoan baztertzeko dituen horri. Egun osoan zehar, gizonek boluntariotzat dihardute nondik jo adierazten, sukaldean aritzen edo mahaiak biltzen. Kirolean ardaztuz gero, adibide garrantzitsu bat dugu Donostiako Lilatloia. Lehenbizikoz 1990ean antolatu zen, eta 160 emakumek egin zuten lasterka; gaur egun 6.000 emakumek baino gehiagok hartzen dute parte, beren ahalduztzearen alde.

Nori dago zuzenduta?

15

Edozein adinetako emakumeei.

Nork bultzatu du?

Aske kolektibo feministak eta Zaldibiako Udalak.

Laguntza soziolaborala eta indarkeria matxisten aurkako tailerrak emakume migratzaileentzat

Zertan datza?

16

Emakume migratzaileek hainbat egoerari egin behar diete aurre: gizarteko eta lan-munduko kalteberatasunari, pobrezia-aren feminizazioari eta indarkeria matxistei. Horri guztiari aurpegi emateko, Hegoaldetik Enarak kooperatibak orientazio eta laguntza soziolaboraleko zerbitzu bat eskaintzen die emakume horiei, ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzeko. Behar izanez gero, bideratu egiten ditu haiek artatu ditzaketen beste erakunde-zerbitzuetara.

Gainera, etxeko eta zaintzako langileek aurre egin beharreko indarkeriei buruzko solasaldiak eta tailerrak antolatzen dituzte, emakume migratzaileen ohiko lan-irteera baita.

Ekintza-ikerketa parte-hartzailea (gaztelaniaz, IAP) erabiliz, jorratu egiten dituzte emakumezko langile migratzaileek migrazio-prozesu osoan izandako indarkeria anitz eta sistemikoak: jatorrizko herrialdean, bidaian zehar, heldueran eta lan-baldintzatan jasandakoak. Gogoeta egitea du jomuga, arrazaren, generoaren eta klasearen zapalkuntza-ardatzei buruz. Horrez gain, aztertutako egiten dute langile migratzaileek zer motatako indarkeria matxista eta sexualei egin behar dieten aurre lan-testuinguruetan.

Nori dago zuzenduta?

Emakume migratzaileei.

Nork bultzatu du?

Hegoaldetik Enarak kooperatibak, udalekin lankidetzan.

Indarkeria matxistaren aurkako ikastaroak ostalaritzan, merkataritzan eta gaueko aisialdian

Zertan datza?

Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak indarkeria matxistaren prebentzioari buruzko prestakuntza-ikastaroen kanpaina bat bultzatu zuen, merkataritzako eta ostalaritzako elkarrekin lankidetzan. Ikastaro horietan hainbat tresna eman zituzten, indarkeria-egoerak identifikatzeko eta horren aurrean egokiro jarduteko, indarkeria matxistaren ondorioei buruz sentsibilizatzeko eta informazioa emateko, hirian indarkeria-kasuak artatzeko dauden baliabideei buruz. Kanpainarekin batera, eranskailuak eta biniloak jarri zituzten establezimenduetan.

Ekimenak izandako arrakastaren ondorioz, Udalak beste ekimen bat egin zuen, Gasteizko gaueko aisialdian diharduten lokalak abiapuntutzat hartuta. Ekimenak honako helburu hau zuen: sexu-indarkerien aurkako sare bat sortzea, eta berariazko protokolo bat egitea arreta emateko eta prebenitzeko, bai eta berariazko prestakuntza ematea ere, lokal horietako arduradunei eta langileei.

Nori dago zuzenduta?

17

Kalean bertan eta jendeari zabalik dauden establezimenduei (dendei, kafetegiei eta jatetxeei, gaueko aisialdirako lokalei).

Nork bultzatu du?

Gasteizko Udalak.

Hilketa matxis- ta baten ondoren entzuteko eta arreta psikologi- koa emateko espazio publikoa

Zertan datza?

18

2023ko maiatzaren 17an gizon batek bere bikotekide ohia hil zuen parke batean, egun argiz, Orioko erdigunean. Hilketak astindu egin zituen familiak eta 6.000 biztanleko herria. Orioko Udalak, Alkatetzaren eta Berdintasun-zinegotziaren eta udalerriko Emakumeen Etxearen bitartez, berehala ezarri zituzten banakako eta taldeko erreparazio-neurriak. Hala, entzuteko espazio publiko bat prestatu zuten, lehen laguntza psikologikoekin. Hainbat astez egon zen martxan, eta Sortzen aholkularitzako profesionalen esku-hartzea izan zuen.

Espazio horretan izan ziren hilketa halabeharrez ikusi zuten pertsonak, gorpuzkiak garbitzen parte hartu zuten udaltzainak, senideak eta lagunak... 50 pertsona inguru bertaratu ziren, eta horietatik 12k arreta psikologiko espezializatua behar izan zuten. Edonor joan zitekeen sentitzen zutena edo ikusitakoa adieraztera, aldeztu aurretik hitzordurik hartu gabe. Saiotetan emakume batek aitortu zuen indarkeria matxistaren biktima zela edo izan zela. Gainera, hiru orduko hitzaldiak eman ziren hezkuntza- eta kirol-komunitateetan. Bertan, hitzaldiek eragin emozional handia izan zuten, hiltzailea entrenatzailea baitzen.

Nori dago zuzenduta?

Hilketa matxista batek eragindako pertsonen.

Nork bultzatu du?

Orioko Udalak eta Orioko Emakumeen Etxeak, Sortzen aholkularitzarekin lankidetzan.

4

Antzeratu daitezkeen
esperientziak

Politikan dihardu- ten emakumeen aurkako indarkeria agendan sartzea- Manuela Ramos Emakumeen Mugi- mendua (Peru)

Zertan datza?

Peruko Manuela Ramos Mugimenduak hauteman zuen emakume politikariek batez beste 4 urte ematen zituztela beren karguetan, haiei eta haien ingurukoei eragindako presioen ondorioz. Emakume askok, gainera, onartu egiten zuten haien aurkako indarkeria, beren karguetan aritzearen parte izango balitz bezala.

Horren aurrean, hainbat programa bultzatu dituzte emakume horiekin lan egiteko, hautagaiekin nahiz kargu politikoak izatera heldu direnekin. Programa horietan egindako bilerak, hitzaldiak, tailerrak eta aldizkako jarraipenak egiten dituzte. Horien bitartez, Manuela Ramos mugimenduaren helburua da emakume horien gaitasunak indartzea, emakumeenganako indarkeria politikoaren aurkako araudi espezifikoa lantzen laguntzea edo jazarpen politikoari buruzko alertak ezartzea. Aholkularitza, prestakuntza eta laguntza tekniko eta politikoa emateko zerbitzu bat da, emakume horiei beren erantzukizunak betetzen laguntzeko.

19

Aldi berean, indarkeria matxistei buruz dauden tokiko araudiak aztertzen dituzte -nola politika diharduten emakumeei hala komunitate osoari dagozkienak-. Horren bidez, artatu egin nahi dituzte emakume horiek jasandako indarkeria-kasuak (hala nola jazarpen politikoa eta ziberjazarpena). Era berean, beren helburua da tokiko eta eskualdeko gobernuetan berariazko barne-araudi bat sortzea, jazarpen politikoa sartzeko eta hutsegite larritzat jotzeko. Lege horrek aukera emango luke jazarlea zigortzeko, enpleguaren eta soldataren aldi baterako etetearekin, baita kargutik kentzearekin ere.

Nori dago zuzenduta?

Emakumezko politikariei, hautagaiei eta buruei, bai toki-mailan, bai eskualde-mailan.

Nork bultzatu du?

Peruko Manuela Ramos Mugimenduak eta Peruko Emakume Agintarien Sare Nazionalak (RENAMA sareak).

Indarkeria matxistari tokian bertan aurka egitearen garrantzia

20

Azken bi hamarkadetan datuak bildu dira emakumeen aurka burututako indarkeriari buruz, eta indarkeria matxistak prebenitzeko eta zigortzeko neurriak dituzten hainbat lege onartu dira. Denbora-tarte horretan, berdintasun-politikak funtsezko tresna izan dira herritarrek kontzientziazteko, identifikatzeko eta sentsibilizatzeko. Alde horretatik, tokiko, probintziako eta autonomia-erkidegoko ekimenak ezinbestekoak dira emakumeak hezteko, kontzientziazteko eta ahalduntzeko, behin biztanleria eta haren testuingurua hobeto eta sakonago ezagututa. Ekimen horiek erakunde publikoekin esku-hartzea dute, eta kidekoek antzeratzen dituzte; gainera, aukera ematen dute indarkeria matxisten aurka era globalean egiteko, kontuan hartuta mundu osoko emakumeei eragiten dietela.

Udala, zehazki, herritarrengandik hurbilen dagoen Administrazioaren atea da. Beraz, udaletan antolatutako ekimenak zuzenean heltzen zaizkie nola emakumeei hala balizko kaltegileei. Batetik, udalak dira indarkeriaren biktimei diziplinarteko arreta eta laguntza eskaintzeko tokia. Bestalde, talde feministak tokiko erakundeetara errazago hel daitezkeenez, erakunde horien aurrean adierazten dituzte eskaera eta behar zehatzak. Horiek artatzeko antolatzen dira, ondoren, tokiko politika, kanpaina edo ekimen puntualak.

Euskal erakunde publikoak ildo horretan ari dira lanean, dagoeneko BERDINSAREaren kide baita EAEko udalerrien % 80. Berdintasunaren aldeko euskal udalerrien sare horren sustatzaile dira Emakunde (Emakumearen Euskal Erakundea) eta EUEDEL (Euskadiko Udalen Elkarte). Bestalde, aurreko bi erakunde horiek bultzatzen dute Virginia Woolf Basqueskola, Euskadiko tokiko emakume hautetsien sarea. *Berdintasunaren unea da: zaurgarritasun arriskuan dauden emakumeen ahalduntzea – begirada globalarekin – indarkeria matxistarik gabeko mundu bat eraikitze eragile gisa* proiektuak ere jasota dauka politikan diharduten emakumeekin lankidetzan jardutea eta sentsibilizatzea, kontuan hartuta tokiko lanak, indarkeria matxistaren adierazpen orori aurka egiteko apustutzat, gizartearen eraldatzeko gaitasuna eta helmena dituela.